

PRENTSA-OHARRA

Kutxabankek eta BBK Fundazioak parte hartuko dute I. BBF Fintech Hackatoian

- Ekitaldia ekainaren 25etik 27ra bitartean egingo da Bilbon, eta ekintzaileak eta enpresak konektatuko ditu, finantzak eta aseguruak digitalizazioaren bidez birpentsatzeko
- Kutxabankek eta BBK Fundazioak beren esperientzia eta ezagutza eskainiko dituzte hackatoiaren kontseilari eta epaimahaiko kide izanik

2021eko ekainaren 18an. Kutxabankek eta BBK Fundazioak modu aktiboan parte hartuko dute **Hack& Disrupt Fintech!** ekitaldian. Hackatoi hori ekainaren 25etik 27ra bitartean egingo da Bilbon, BBF Fintech, finantzetan eta teknologian negozio berrien sorrera bultzatzen duen egitasmo publiko-pribatuak antolatuta.

Ekitaldi horren helburua da ekintzaileak eta enpresak konektatzea, finantzak eta seguruak digitalizazioaren bidez birpentsatzeko. Hainbat herrialdeko 100dik gora ekintzailek parte hartzea espero da. Taldean ariko da lanean, enpresa kolaboratzaileek, tartean, **Kutxabank** eta **BBK Fundazioa**, finantzen eta aseguruaren arloan jarriko dizkieten errorei konponbidea emateko. Prozesu horren ondoren, gutxienez bost startup hautatuko dira BBF Fintech-ek laguntza eskaini diezaien proiektuaren inkubazioaldian.

Kutxabankek eta BBK-ko adituek ekintzaileen kontseilari-lanak egingo dituzte aurkeztuko diren errorei konponbidea emateko prozesuan. Hala, konponbide digitalen kosorkuntzako esperientzia eta ikuspegia eskainiko dituzte, aipatu erakundeek finantza-produktuen eta zerbitzuen katalogoan txertatu baitituzte. Gainera, Amaia Ayastuy, Kutxabankek Berrikuntza eta Kanaletako zuzendariak ekainaren 25ean, ostiralez, parte hartuko du «**Jasangarritasuna finantzetan**» mahai-inguruan. Kutxabankek berrikuntza-arloan eta finantza-jasangarrien arloan egindako aurrerapenak aurkeztuko ditu.

Orobat, Kutxabankek adituak proiektuaren hurrengo fasera –talde ekintzaileen inkubazio-programa– igaroko diren taldeen hautaketaz arduratuko den epaimahaiko kide izango dira. Programa amaitzeko, hirugarren fasea, «Insurtech, berrikuntza irekiko programa», uda ondoren hasiko da, eta EAEko puntako bazkide teknologiko batek gutxienezko produktu bideragarri bat (MVP, ingelesezko siglata) sortzea izango du xede.

Ekitaldiak **formatu hibridoa** izango du; alderdi presentziala Bilbao Berrikuntza Faktorian izango da, eta birtuala, aldiz, plataforma teknologiko batean, eta horretan jarraitu ahal izango dira ekimenaren hasiera eta amaiera nahiz aurkezpenak.